SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

# Soziolinguistika albistaria

131. zenbakia

2022ko urriak 28 - azaroak 10

## Soziolinguistika Klusterreko albisteak

### Bat soziolinguistika aldizkaria liburu elektronikoan irakurtzeko egokituta eskaintzen da

Orain, harpidedun eta irakurleek ebook edo liburu elektroniko dispositiboetan irakurri ahal izango dute aldizkaria. Izan ere, 123-124 zenbakitik aurrera, PDF formatuaz gain EPUB formatuan eskainiko dira zenbaki osoak eta artikuluak.

### Balaztak

[Garaigoikoa] Josune Zabalaren "Ahozko komunikazioa irakastea" liburu dibulgatibo zoragarria irakurtzen ari nintzela, ahozkotasunaren inguruan dauden 11 balazta jaso nituen (11 balazta edo 11 aurreiritzi), eta berriro ere, zer gutxi aurreratu dugun aurreiritzi oinarrizko batzuk deuseztatzen.

## Ikerketak

### Ikerlari Gazteen Saria deitu du Gerediaga Elkarteak

[Unibertsitatea.net] Gerediaga Elkarteak Durangaldeko ondarea, historia, kultura eta gizartearen zaintza, ikerketa eta zabalpenarekiko zaletasuna gazteen artean bultzatzeko Ikerlari Gazteen Saria deitu du.

### Euskaldunak hamarretik lau pasatxo dira Araba, Bizkai eta Gipuzkoan

[BERRIA] Ezagutza mailari buruzko datuak ezagutarazi ditu Eustat estatistika institutuak, zentsuan oinarritutakoak. Azken hamarkadako bilakaera aztertu du, eta, horren arabera, euskaldunen proportzioa sei puntu handitu da 2011tik: %35,2tik %43,3ra.

—

## Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

### Jolas eta solas euskaratik eleaniztasunera

[Zientzia Astea, EHU] Aste honetan, 9tik 13ra Zientziaren Astea ospatzen ari da UPV/EHUn. Tartean, ELEBILAB ikertaldeak antolatutako "Jolas eta solas euskaratik eleaniztasunera" tailerra eskainiko da.

### Online solasaldia azaroaren 15ean: Euskarazko produkzio zientifikoa

[UEU] SolastUEU hitzaldi-zikloaren baitan, azaroaren 15ean, 18:00etan, online solasaldia prestatu dugu: "Euskarazko produkzio zientifikoa".

### HDEH2022: Teknologia eta gizartea. Panglosa problematizatzen hackathoia.

[UEU] Hackathoiaren planteamendua teknologia, berrikuntza eta komunitatearen erpinak elkar-harremanean pentsatu, problematizatu eta gureganatzea da. Jardunaldi hau elkarlanean antolatu dute Badalabek, Errenteriako udalak eta UEUk.

### Abenduaren 2an, euskara eta kulturartekotasuna udalerri euskaldunetako hezkuntza-komunitateetan nola uztartu aztergai

[HUHEZI] Euskara eta kulturartekotasuna|ri buruzko jardunaldia antolatu dugu UEMArekin batera: "Euskara eta kulturartekotasuna udalerri euskaldunetako hezkuntza-komunitateetan esperientzia".

### Plurensa-2023 : Plurilinguisme, enseignement-apprentissage, complexité et intégrité : perspectives épistémologiques, didactique et politique

[Plurensa] Le congrès se tiendra du 7 au 10 septembre a Montpellier et la date limite d'envoi des propositions c'est le 15 novembre 2022.

—

# Liburuak eta artikulu zientifikoak

## Henrike Knörren 67 idazlan hautatu bildu ditu Euskaltzaindiak liburu batean, euskaltzain arabarra jaio zeneko 75. urteurrenaren kariaz

[Euskaltzaindia] Gaur, Gasteizen egin zaion omenaldiaren esparruan aurkeztu da argitalpena. Onomastika jardunaldi bat ere antolatu du Euskaltzaindiak, Arabako Foru Aldundiaren babesarekin, eta ekitaldi berean UPV/EHUko Henrike Knörr bekak aurkeztu dira.

## Intersections of official and family language policy in Quebec

[Journal of Multilingual and Multicultural Development] The current paper describes a study that sought to determine the beliefs, practices, and needs of parents living in Montreal, Quebec, who were raising their children bi/multilingually.

## Emotions and multilingualism in family language policy: Introduction to the special issue

[International Journal of Bilingualism] The primary aim of this special issue is to advance theoretical and empirical knowledge about the role of emotion in family language policy (FLP).

## Parent-child language differences and ethnolinguistic minority children's evaluations of family life

[Journal of Multilingual and Multicultural Development] In this study, we investigate the role of intergenerational language differences in cultivating and/or complicating family relations and how aspects of gender may moderate these relationships.

## Monográfico sobre metodología en sociología en la revista Papers

[Revista Papers] Se acaba de publicar el volumen 107 (número 4) de la revista Papers, donde se incluyen trabajos en los cuales se aplican una gran variedad de métodos en el analisis social.

*Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean HABE Liburutegira (liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.*

—

# Bestelako albisteak

## Euskaraldiaren izen-ematea azken txanpan

[Eusko Jaurlaritza] Euskaraldia hasteko hamar egun falta direla, herritarrek ariketa sozialean parte hartu eta izena emateko deia egin dute hainbat eragilek. Izen ematea izenematea.euskaraldia.eus gunean egiten ari dira ahobizi eta belarriprestak.

## Ostiralean abiatuko da Pantailaldia, euskarazko edukiak sortu eta kontsumitzeko ariketa kolektiboa

[BERRIA] Euskaraldiaren testuinguruan, Pantailak Euskaraz taldeak Pantailaldia egitasmoa abiatuko du ostiralean. Helburu bikoitza du ariketak: euskarazko ikus-entzunezkoen kontsumoa sustatzea eta pantailen munduan euskarak dituen gabeziak azaleratzea, erakundeek pausoak eman ditzaten.

## "Ez dakit zergatik, baina hemen ez da espero atzerritarrak euskaraz egitea"

[ARGIA] Hizkuntzalaritza ikasketak Moskun egina, hantxe hasi zen euskaraz ikasten, Etxepare Institutuaren irakurletza baliatuz. Euskal Herrira etorri zen lehenbizi, 2011n; bizitzera, 2012. urtean, eta kasik hamarkada bat darama gure artean, ikasketak burutzen, doktore-tesian eta lanean.

## Eman minutu 1: Ikus-Entzunezko Piezen Nazioarteko Lehiaketa

[UNESCO Etxea] UNESCO Etxeak urtero antolatzen duen ikus-entzunezko lanen lehiaketak "Eman minutu 1... HITZAK" izena du 2022an. Kultura- eta hizkuntza-aniztasunari buruzko minutu bateko bideorik onenak sarituko dira.

## Job posting: Assistant Professor in Linguistic Anthropology at Sacramento State University

[Sacramento State University] The Department of Anthropology at CSUS invites applications for a full-time tenure track position at the rank of Assistant Professor in Linguistic Anthropology. Deadline: December 1st.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

**Babeslea:**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

**Bazkide partaidea:**

emun
Euskara eta berrikuntza soziala